

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2013ko IRAILAREN 12an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2013ko irailaren 12an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Aritz Usandizaga Larrañaga
Gotzon Jauregi Sarasola
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Jon Tejeria Otermin
Karlos Irazu Muñoa

Bere ezin etorria azaltzen du: Imanol Aranzabal Lasa

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...


Alkate jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada: **2013ko uztailaren 24an egindako ohiko bilkura**
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
3. Larraulgo Bake epaile eta bere ordezkoren hautaketaren onespena, hala bada.
4. Larraulgo Guraso Elkarteak aurkezturiko 2012/2013 garbiketa memoriaren berri ematea, hala bada.
5. Izar Berri etxeko teilatua eraberritzeko obra baimena eskaera, J.A.
6. A.L. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.
7. Udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueratan enplegua bultzatzeko programaren babesean, herri langile bat hautatzeko lehiaketan aginduko duten irizpideen onespena, hala bada.
8. Fakturak eta ordainketak.
9. Beste batzuk.
10. Erregu, galderak eta mozioak.

...//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- 2013 urteko uztailearen 24ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

18/2013 Alkatetza Ebazpena, uztailearen 23koa, 2013ko uztailearen 23ko 26/2013 Foru Dekretuaren babesean, udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programa onestea, dagokion diru-laguntza eginez, ebazten duena.

19/2013 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 26koa, LIDOINSA enpresari, Kultur etxea eta Udaletxea garbitzeko aurkezturiko aurrekontua onestea eta zerbitzua esleitzea, irailaren 5etik urriaren 11 arte, ebazten duena.

20/2013 Alkatetza Ebazpena, irailaren 3koa, P.O. andreari Larraulgo Udalean jarrita duen fidantza itzultzea, ebazten duena.

21/2013 Alkatetza Ebazpena, irailaren 10ekoa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea M.E.A. andreari, ebazten duena.

22/2013 Alkatetza Ebazpena, irailaren 10ekoa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea J.E.A. jaunari, ebazten duena.

23/2013 Alkatetza Ebazpena, irailaren 10ekoa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea A.E.A. jaunari, ebazten duena.


24/2013 Alkatetza Ebazpena, irailaren 10ekoa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea J.E.A. andreari, ebazten duena.

25/2013 Alkatetza Ebazpena, irailaren 10ekoa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea F.E.A. jaunari, ebazten duena.

26/2013 Alkatetza Ebazpena, irailaren 10ekoa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea A.E.A. andreari, ebazten duena.

27/2013 Alkatetza Ebazpena, irailaren 10ekoa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea M.B.E.A. andreari, ebazten duena.

28/2013 Alkatetza Ebazpena, irailaren 10ekoa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea M.E.E.A. andreari, ebazten duena.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

29/2013 Alkatetza Ebazpena, irailaren 10ekoa, Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren kitapena onestea M.A.I. andreari, ebazten duena.

30/2013 Alkatetza Ebazpena, irailaren 6koa, 2014 urterako Larraulgo udalerriko jaiegun bezala abuztuak 4 astelehena finkatzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO BAKE EPAILE ETA BERE ORDEZKOAREN HAUTAKETAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2013 urteko uztailaren 4ean Udalbatzarrak, ospatutako ohiko bilkuran, hartutako akordioz datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdi publikoa egitea erabaki zuela.

Ikusirik Larraulgo Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela 2013 urteko uztailaren 19an eta deialdiari buruzko bandoa banatu zitzaiera Larraulgo herritarrei, hamabost lanegunetako epea zabaldu zelarik, 2013 urteko uztailaren 20tik abuzturen 12a bitartean, biak barne, interesa zutenak Larraulgo Udaletxean izena eman zezaten.

Ikusirik epearen barnean ondorengo sei pertsonak eskaera aurkeztu dutela:


- J. A. L.
- A. M.G.
- E.T.A.
- J.M. I.M.
- A.A.U.
- M.A.U.

Ikusirik sei hautagaiak kargua hartzeko baldintza guztiak betetzen dituztela eta ez dutela Botere Judizialeko Lege Organikoak 102,302, 303 eta 309 artikuluetan, eta Bake Epailei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erreglamenduan xedatutako ezgaitasun zein bateraezintasun kausarik.

Ikusirik lehenengo lau hautagaiak Larraulgo udalerrian erroldatuta daudela eta azkeneko biak Usurbilen, lehenasuna herrikoei emango zaielarik.

Ikusirik lau hautagai daudela baldintza guztiak betetzen dituztenak, Udalbatzak, zozketa egitea erabakitzen duela, ondorengo delarik emaitza:

- Titularra: E.T.A.
- 1. Ordezkoa: A. M.G.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-2. Ordezkoa: J.M. I.M.

-3. Ordezkoa: J. A. L.

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU

LEHENA.- Datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epaile moduan izendatua izan dadin E.T.A. andrea proposatu.

BIGARRENA.- Datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epailearen ordezeko moduan izendatua izan dadin A. M.G. andrea proposatu.

HIRUGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri eman eta aldi berean akordioa argitaratu Udaletxeko Iragarki Taulan.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiari eman.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO GURASO ELKARTEAK AURKEZTURIKO 2012/2013 GARBIKETA MEMORIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Larraulgo Guraso Elkarteak aurkezturiko 2012/2013 urteko garbiketari buruzko memoria.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Larraulgo Guraso Elkarteak aurkezturiko 2012/2013 urteko garbitasunari buruzko memoria onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

IZAR BERRI ETXEKO TEILATUA ERABERRITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.A.

Ikusirik J.A.U. andreak eginiko eskaera, non Izar berri etxeko teilatua konpontzeko obra baimena eskaera egiten duen. Horretarako aurrekontu bat aurkezten duelarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Larraulgo Arau subsidiarioen 48º artikuluan eraikinen kanpo itxuraren baldintzak finkatzen direla.

Artículo 48.- Condiciones de tratamiento exterior de las edificaciones.

-Con carácter general se evitará la utilización de materiales cuyo color, textura y formas de acabado difieran ostensiblemente de los utilizados en las construcciones rurales tradicionales de la zona.

-....

*-Como material de cubierta se utilizará preferentemente la **teja cerámica**, autorizándose la utilización de otros materiales de coloración y textura similares.*

Beraz, eskarian azaltzen diren lanak Larraulgo araudiarekin bat datoz.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.A.U. andreak eginiko baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Izar Berri etxeko teilatua eraberritzeko obra baimena eskaera onestu, betiere Udalbatza honek zehazten dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri interesdunari ematea.


SEIGARREN PUNTUA

A.L. ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Une honetan, arratsaldeko 19.50 orduetan, Jon Tejeria zinegotzia Udalbatza honetara bertaratzen da.

Ikusirik A.L. andreak eginiko eskaera, non azaltzen duen bere senarra zen J.S. jaunak A.G. jaunari erositako bi terreneen segregazio baimena edo honen aurkakotasun eza behar duela, Agerre berri baserria eta bordaren inskripzioa jabetza erregistroan egiteko.

Ikusirik 1995eko azaroaren 30ean, A.G.G. jaunak bere jabetzakoa zen Echauroku-luberria lursailetik 218,50 m2 segregatu zituela J.S A. jaunari saltzeko, Donostiako Francisco Javier Roig Morrás notarioren aurrean egina eta 3.633 zenbakia



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

duena .

Ikusirik 1997ko otsailaren 12an, A.G.G. jaunak bere jabetzakoa zen Echauruko-luberria lursailetik 400,50 m² segregatu zituela J.S. A. jaunari saltzeko, Donostiako Francisco Javier Roig Morrás notarioren aurrean egina eta 395 zenbakia duena .

Ikusirik aipaturiko segregazioak egiteko ez zela udal baimenik eskatu.

Ikusirik 168/1997 dekretua, uztailaren 8koa, non Euskal Autonomi Elkarteko lehentasuneko nekazaritza-ustiapenak eta EAEko eskualdeetako eta lurralde historikoetako laborantzako gutxieneko unitateak zehazten diren .

Ikusirik goian aipaturiko segregazioak, 168/1997 dekretua baino azkarragoak direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 1995eko azaroaren 30ean, A.G.G. jaunak bere jabetzakoa den Echauruko-luberria lursailetik eginiko 218,50 m²-ko segregazioari oztoporik ez jartzea. Donostiako Francisco Javier Roig Morrás notarioren aurrean egin zena eta 3.633 zenbakia duena .

BIGARRENA: 1997ko otsailaren 12an, A.G.G. jaunak bere jabetzakoa den Echauruko-luberria lursailetik eginiko 400,50 m²-ko segregazioari oztoporik ez jartzea. , Donostiako Francisco Javier Roig Morrás notarioren aurrean egin zena eta 395 zenbakia duena .


HIRUGARRENA: Goian aipaturiko bi erabakiak baldintzaturik ematea, hau da, bi lursailak A.L. andrearen alboan dituen lursailekin bat egitea (Agerre berri baserria), guztiak zatietan bihurtuz.

A.L. andrearen jabetzakoa diren Larraulgo ondasunak ondorengoak izanik:

- Tolosako Jabetza erregistroko, Larraulgo herriko 563 finka, 1894 tomoa, 15 liburua, 18 orrian inskribatua.
- Tolosako Jabetza erregistroko, Larraulgo herriko 564 finka, 1894 tomoa, 15 liburua, 20 orrian inskribatua.

LAUGARRENA: Erabaki hauen berri A.L. andreari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

UDALETAKO ZERBITZU PUBLIKOEN KUDEAKETARI DAGOZKION JARDUERATEN ENPLEGUA BULTZATZEKO PROGRAMAREN BABESEAN, HERRI LANGILE BAT HAUTATZEKO LEHIAKETAN AGINDUKO DUTEN IRIZPIDEEN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik uztailaren 23ko 26/2013 Foru Dekretua, udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programak garatzearren Gipuzkoako udalei laguntzeko programa bati esker, Larraulgo Udalak Herri langile modura jarduteko lan kontratua egin ahal izango duela.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak, Larraulgo Udalari emandako diru-laguntzaren bidez Herri langile bat hautatzeko lehiaketan aginduko duten irizpide batzuk proposatzen dituela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak, Herri langile bat, 5 hilabetez eta jarduera osoz kontratatzeko prozeduran, kontutan hartuko diren irizpideak onestea, ondorengoak izanik:

a) Hautapen data aurreko hamabi hilabeteen barruan langabezia laguntza edo prestazioa amaitu izana. 10 puntu arte.

b) Azkeneko lan harremana enplegu eskaintzaren data aurreko bi urteetan amaitu izana. 10 puntu arte.

c) Langabezia laguntzarik edo prestaziorik ez jasotzea. 10 puntu arte.

d) Diru sarrerak bermatzeko errentaren edo diru sarrerak bermatzeko laguntzaren jasotzailea izatea. 10 puntu arte.

e) Ardurapean mendekotasuna duten pertsona gehiago edukitzea, eta familia errentako ratio txikiagoa izatea. 10 puntu, honako haztapenarekin:

-4 pertsona edo gehiago eta 45.000 euro baino familia errenta baxuagoa: 10 puntu.

-3 pertsona eta 35.000 euro baino familia errenta baxuagoa: 8 puntu.

-2 pertsona eta 25.000 euro baino familia errenta baxuagoa: 6 puntu.

-Pertsona bat eta 20.000 euro baino familia errenta baxuagoa: 4 puntu.


-Besteak: 2 puntu.

f) Emakumezkoa izatea: 3 puntu.

h) Hogeita hamabost urte baino gutxiago edo berrogeita bost urte baino gehiago izatea: 5 puntu.

i) Pertsona desgaitua izatea: 7 puntu.

ZORTZIGARREN PUNTUA FAKTURAK ETA ORDAINKETAK



LARRAULGO UDALA


(GIPUZKOA)

Une honetan, arratsaldeko 20.00 orduetan, Karlos Irazu zinegotzia Udalbatza honetara bertarutzen da.

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

EBA ERKIZIA BRION	198,83
BABESA SUZAI	168,63
ULAHI	572,05
JOXAN ALTUNA	189,08
DIONISIO ORMAZABAL	84,66
FERRETERIA BARBE	29,16
EUSKALTEL	0,53
MOVISTAR	79,86
MOVISTAR	17,40
MOVISTAR	136,86
MOVISTAR	18,77
MOVISTAR	57,86
MOVISTAR	85,24
REPSOL	42,73
REPSOL	4,21
GAS NATURAL FENOSA	192,64
GAS NATURAL FENOSA	42,06
GAS NATURAL FENOSA	287,71
GAS NATURAL FENOSA	113,36
GAS NATURAL FENOSA	312,99
GAS NATURAL FENOSA	216,76
GAS NATURAL FENOSA	325,64
GAS NATURAL FENOSA	99,11
GAS NATURAL FENOSA	61,20
GAS NATURAL FENOSA	4,43
GAS NATURAL FENOSA	24,27
GAS NATURAL FENOSA	24,27
GAS NATURAL FENOSA	5,09
GAS NATURAL FENOSA	5,11
GAS NATURAL FENOSA	4,67
GAS NATURAL FENOSA	4,34
GAS NATURAL FENOSA	6,82
GAS NATURAL FENOSA	150,83
GAS NATURAL FENOSA	140,78
GAS NATURAL FENOSA	295,83

Udalbatzarrak **ahoko** batez hurrengo,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **4.003,78** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

9.1. DINA-7 KULTUR ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik DINA-7 Kultur Elkarteak ondorengo eskaera egin duela:

“Idatzi honen bidez, Dina-7 Kultur Elkarteak, hau da, Larraulgo Ekomuseoaren gestioa daraman taldeak, ondorengo eskaera luzatu nahi dio Udalari:

Aurtengo San Estebanetan estreinatu den Pello Joxepe berriari, herriaren historia eta ondarearen sinbolo denez, festaz gainontzeko egunetan bere lekua Larraulgo Museo Etnografikoan ematea. Hartara herria bisitatzera datorren edonori azalduko litzaiokeelako honen berri.

Eskaera hau kontutan hartuko duzuelakoan, eskerrak aldez aurretik.

Dina-7 Kultur Elkarteak”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Dina -7 Kultur Elkarteak eginiko eskaera onestu, hau da aurtengo San Estebanetan estreinatu den Pello Joxepe berria, festaz gainontzeko egunetan Larraulgo Museo Etnografikoan gordetzea, herria bisitatzera datorren guztiari bere berri emateko.

BIGARRENA Dina -7 Kultur Elkarteari erabaki honen berri ematea.

9.2. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO BERRIKUNTZAKO, LANDA GARAPENEN ETA TURISMO DEPARTAMENTUKO IDATZIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamendutik igorritako idatzia, non ondorengoa dioen:

“Alkate agurgarria:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gure departamentuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazti migratzaileen ehiza arautzeko Foru Agindua onartu du 2013ko uztailaren 16an. Foru Agindu horrek Gipuzkoako ohiko pasabideetako lerro eta postu baimenduen erregistroa sortzen du.

Erregistro horretan dauden lerroetan eta postuetan Foru Aginduan ezarritakoa aplikatu behar da, eta, beraz, Lurraldeko Debekualdien Urteko Aginduan zehaztutako pase garaian eta postuen antolakuntza eta zozketa egiten ez duten postuak ezingo dira baimendutako postutzat hartu.

Departamentuak Usarrabi inguruan dauden postuak aipatutako erregistroan sartu ditu. Ehiza lerroari Usarrabi izena jarri diogu eta, guztira, 83 postu daude baimenduta, gehienak Larraulen baina baita ere Asteasun eta Alkizan.

Horren ondorioz, denboraldia hasi baino lehen postuen kudeaketa antolatzen ez bada, Federazioaren bitartez, postu horietan ehiza debekatu egingo dugu.

Aldi berean, zure laguntza eskatu nahi dizugu, berriro, informazio hori zure herriko ehiztariei helarazteko.

Aldez aurretik, zure laguntza eskertuz, jaso ezazu gure agurrik beroena.

Mendi eta Natura inguruneko zuzendari nagusia.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek , aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-. Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismoko Departamentuak igorritako idatziaren berri herritarrei ematea, bando eta Larraulgo web orriaren bitartez.


HAMARGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.15 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

